

9. linea

Rue de la Pompe

Ion Orzaiz Galarza

Ipurdi lodia bagoiaren erdiko atetik sartu da. Beste hainbat ipurdirekin egin du topo, jendez mükuru baitago metroa. Bakeroetan estu-estu sartuta doan ipurdi zut eta harroxxo bat ikusi du lehenbizi, albo batera eta bestera mugitzen, bere jabe ipurtarinak kaskoetatik entzuten duen musikaren erritmora. Ipurdi lodiak igurtziazaldi arin batekin agurtu du bakeroduna, eta aurrera jarraitu du, abagune bat ikusi baitu, agure baten uzki zimelaren eta kirolari baten popa fin eta lirainaren artean.

Ipurdi lodia arrunt lodia da, egiazki. Bere jabeak uste duena baino dezente lodiagoa, eta abagune horretan sartu ahal izateko, uzki zimelari eta ipurdi kirolariari bultza egin behar izan die.

Gibelefik so eginez gero, ipur-talde ederra osatzen dute: agure baten haragi iharraren eta kirolariaren masaila gihartsuen artean, gure ipurdi lodia, loredun soineko fin batek estalia. Irudi orekatua eta edertasunez betea. Poetikoa kasik.

Metroa hurrengo geltokira iritsi eta geldialdia egin du. Trenaren balaztak eragindako astinaldiaren ostean, ipurmamiak euren artean borrokan hasi dira, lehen nor aterako. Tanga arrosa praken gainetik agerian daraman ipurdi finfirinak bultza egin dio trajedun ipurtandi bati, eta honek gibelerat egin du, gona estu batean sartu ezinik zihooan ipurmami mamitsuarekin estropozo eginez. Momentuko estualdiaren ostean, bagoia erdi hutsik gelditu da bat-batean: Gure ipurdi lodia, soineko loredunean sartuta, eta aurrean, orain artean ikusi ez zuen popa dotorea. Panazko prakek tinkotasun berezia ematen diote. 50 urte izanen ditu, baina masailen irmotasuna ikusita, edonork nahastuko luke gaztetxo baten ipurdi koxkorrekin.

Loredun soinekoa daraman ipurdi lodiaren jabeak desiraz begiratu ditu gluteo gogor horiek, eta aldamenean eserleku bat libre gelditu dela ikusi du. Zabuka abiatu da ipurdi lodi lore-

duna, jarleku horretan bermatu ahal izateko... eta panazko prakadun ipurmasail lerdenen ondoan egoteko, noski.

Elkarren ondoan daude orain ipurdi biak. Lore-soinekodun ipurdi lodia eta panaz jantzitako uzki irmoa. Bata, eserita, jabearen pisuak jarlekuaren kontra zanpatzen duen bitartean; zutik bestea, prakak duintasun osoz betetzen.

Soineko loreduna daraman ipurdiaren jabeak istant hori sekula ez amaitzea nahiko luke, eta haragi sendo horren aldamenen betirako izan. Baina hurrengo geltokira iritsi dira. Zalaparta batean, metroa gelditzearekin batera, panazko prakadun ipurdia estazioko gainontzeko uzkien artean galdu da. Loredun soinekoa daraman ipurdiaren jabeak panazko masailak segundu bakar batez ikusi ahal izan ditu, estazioko eskaileretan gora zihoozen bitartean. Ipurdi perfektu horren kulunka hipnotikoak liluratu dago, baina kirinka batez metroaren ateak itxi dira berriz ere. Dena ilunpean gelditu da.